



BARREN
TOKIKOM

Hizkuntzaren deskripzio osoa, eginda





elgoibarko herri eskola



Aurre-matrikulazio epea: urtarrilaren 17tik 28ra.
Tel. 943 899 178 e-posta: zuzendaritza@elgoibarhe.net

ALEX SEGADÉ

Ikaslea



Kaixo, 2022

dean bada, zalantzak izatea normalagoa da. Urtean sartuta gaude, baina ez hainbeste, eta hor zalantzak datoz. Zorionduko dut? Ez? Nire gomendioa, besteak zer egiten duenaren zain egotea da. Zoriontzen bazaitu, noski, zoriondu. Aldiz, zoriontzen ez bazaitu, zoriontzeko oso berandu dela pentsatuko du, beraz, hobeto zoriontzen ez baduzu.

Dena delakoa, kirol munduan, interresgarri dator 2022a. Otsailean Neguko Olinpiar Jokoak jokatuko dira Pekinen, 1 Formularen araudi berria dugu, udan Futboleko Mundu Txapel-

keta etorriko da, tenisean Federer, Nadal eta Djokovic Grand Slamen errekorra haustear dira, Marc Marquezen kontua airean dago MotoGPn, La Ligako 50. edizioa dugu aurten... Gertakizun asko ditugu. Norbaitek gogoratuko du, agian, BARRENen idatzi nuen lehen testua: 'Superbowl' izenburua zuen. Aurten Superbowl otsaileko bigarren domekan jokatuko da, ez lehenengoan beti izan den bezala.

Aurten nire hirugarren urtea izango da lauki berde honetan idazten. Hirugarrena jadanik! Idazten dudak bakoitzean sufritzen dut, baina gustura, nola ez. Ez zaizkit beti testu onak irteten (nire ustez). Saiatzen naiz, hala ere. Tarte txiki batez irakurleak entretenitzen ditudalakoan, konforme naiz, eta espero dut denbora luze batez gauza bera egiten jarraitu ahal izatea.

"Idazten dudak bakoitzean sufritzen dut, baina gustura, nola ez. Ez zaizkit beti testu onak irteten (nire ustez)"

Urte berri on, denoi! Egia esan, ez dut inoiz jakin noiz utzi behar zaion urte berria zoriontzeari. Urteko lehenengo astea pasata? Bigarrena? Urtarril osoan egon gaitezke "urte berri on" esaten? Idearik ez. Bakoitzaren irizpidearen arabera, egun bat edo bestea izango da, baina zoriontzeko egun muga bat ezarri beharko litzatekeela uste dut. Ez pentsa, auzi garrantzitsua da hau! Batzuetan gertatzen zaigu urtean lehenengo aldiz norbaitekin topo egiterakoan urte berria zoriontzeko zalantza izatea. Ala ez? Otsailean bada, dagoeneko, ez dago zalantzarik, baina urtarrilaren erdial-



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Sustialdizkoen Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuitzak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izogirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARREN baserrietan jasotzen dutenentzako oharra



Hemendik aurrera Correos-ek banatuko du BARREN aldzkaria baserrietan, beraz, ez duzue barikuan bertan jasoko.
Helbidea aldatu baduzue edo ez baduzu astekaria jasotzen, jarri gurekin harremanetan.
Barkatu eragozpenak.

Harremanetarako: **943 744 112** edo barren@elgoibarkoizarra.eus



%25

Merkealdia!

- ★ **Neguko izaretan**
- ★ **Sherpa edredoietan**
- ★ **Manta guztietan**



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



San Frantzisko, 26 Tel./faxa: 943 742 535

URTERO BEZALA, BITXI DENDAN ZOZKETA EGIN DUGU.
ZENBAKI IRABAZLEAK ETA ORDEZKOAK HAUEK DIRA:

1. SARIA

250 €-ko bonua
bitxi dendan gastatzeko

Zbkia.: **950**


Ordezko zbkia.: **1.851**

2. SARIA

250 €-ko bonua
bitxi dendan gastatzeko

Zbkia.: **2.996**

Ordezko zbkia.: **1.592**



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

▶ Eguberrietako erakusleihen lehiaketak baditu irabazleak

E lgoibarko Udalak bigarrenkoz antolatu du erakusleihen Eguberrietako lehiaketa, eta aurten, hamalau saltokik hartu dute parte (iaz, 30ek). Epaimahai teknikoak Eizagirre okindegiari eman dio lehen saria (300 euroko erosketa bonoa, Txankakuako saltokietan gastatzeko) eta Sarasketa ortopediari bigarrena (200 eurokoa). Herri-epaimahaiak emandako saria, bestalde, Noa ileapaindegiarentzat izan da (100 eurokoa). 16 urtetik gorako herritarrek izan dute eskaparate gustukoeneri botoa emateko aukera, eta 280 lagunek hartu dute parte. Horien artean, 50 euroko erosketa bonoa zozkatu du Udalak, eta Maria Inmaculada Varas Dobarro suertatu da garaile. Udalak ekimenaren balorazio "oso positiboa" egin du: "Ekimen honen bidez hurbileko saltokietako kontsumoa sustatu eta Gabonetan kaleak animatu nahi izan ditugu. Horrez gain, herritarren eta merkataritzaren arteko elkarreragina lortu nahi izan dugu, hartara, herriko saltokiak ikusgarriagoak egiteko eta herriko ekonomiari laguntzeko".




Sarituak, Kalegoen plazan, Udaleko arduradunekin.



Eizagirre okindegia.



Sarasketa Ortopedia.



Noa ileapaindegia.

Karkizano mertzeria, finalista Aznarinnova eskaparate lehiaketan

Karkizano mertzeriak Espainia mailako Aznarinnova eskaparate lehiaketan finalera iritsi da. Aznar Innova enpresak pijama eta barruko arropen hainbat marka kudeatzen ditu, eta marka horietako batzuk Karkizano mertzerian ere saltzen dituzte. Ainhua Uriguen Karkizanoko arduradunak Eguberrietako eskaparatea prestatzeko erabili zituen marka horietako produktuak, eta lehiaketan parte hartzea erabaki zuen. Gaur da botoa emateko azken eguna. Parte hartzeko, Facebookeko Karkizanoren orrialdean 'Atsegin dut' botoiari klik egin behar zaio.



Benantzio Otaegi parrokoak Elgoibarko parrokia laga du



Benantzio Otaegi parrokoak erretiroa hartu du, eta Errege Eguneko mezan agurtu zituen San Bartolome parrokiako eliztarrak. 78 urte ditu, azkenaldian osasunez pattal samar ibili da, eta Elgoibarko parroko lana lagatzeko ordua iritsi zaiola erabaki du. Parroko berria izendatu bitartean, Debabarreneko lau apaizen laguntza jasoko du Elgoibarko parrokiak domeketan eta jai egunetan Eukaristia ospatzeko, eta baita hileta elizkizunetarako ere. Apaiz horiek euren parrokiatako lanarekin uztartu beharko dute Elgoibarko lana, eta ondorioz, ordu erdiz aurreratuko dute domeketako eta jai egunetako meza. Aurrerantzean, beraz, 11:30ean beharrean, 11:00etan izango da. Hileta elizkizunak orain arte bezala mantentuko dituzte: astelehenetik zapatara, 19:00etan.

Soraluzeko parrokia utzi ostean iritsi zen Benantzio Otaegi Elgoibarrera, 1993an. 29 urtez izan da Elgoibarko parrokoa eta ez da oharkabeen pasatu. Kristau Ikasbidekoen meza bereziaren amaieran hartu zuen hitza eta eskerrak eman zizkien eliztarrei urte hauetan guztietan jaso duen tratuagatik. Parrokiak aparte, Elgoibarko auzoetako elizetan ere urteetan jardun da mezak ematen, eta ermita horien errepasoa ere egin zuen. Elgoibarko esperientzia aberatsa izan dela esanez bukatu zuen bere hitzaldia, eta elizan bildutako herritarrek txalo zaparrada handi batekin agurtu zuten.

Benantzio Otaegi 1943an jaio zen Azpeitian. 10 urte zituela seminarioan sartu zen, eta sei bat urtez aritu zen bertan ikasten, batxilergoa amaitu zuen arte. Tuteran jarraitu zituen ikasketak, eta ondoren, Donostiako seminarioan sartu zen. 1970ean hasi zen apaiz lanetan, Usurbilen. Gerora, Arrasateko San Andres parrokiara iritsi zen, eta 1988an Soraluzera. Bost urte egin zituen han, eta ondoren, Elgoibarrera etorri zen. Erretiroa hartu ostean, Donostiako Goztaitegiak Antigua auzoan duen seminarioan izango du bizitokia.

Txankakuak egin du Eguberrietako zozketa

Txankakua Merkatarik Elkartek Gabozozketako zenbaki irabazleak zein diren jakitera eman du eta txartel sarituen jabeek otsailaren 7ra arteko epea dute aurkezteko. Saria erosketa txeketan jasoko dute irabazleek. Hona zenbaki sarituak eta erreserbakoak: 97.488 (Ordezkoa 87.896) eta 17.760 (Ordezkoa 98.931) 500 euro; eta 37.428 (Ordezkoa 72.574), 85.803 (Ordezkoa 42.164), 29.143 (Ordezkoa 75.128), 65.651 (Ordezkoa 57.913), 35.469 (Ordezkoa 04.145), 21.600 (Ordezkoa 20.489), 07.621 (Ordezkoa 40.614) eta 26.822 (Ordezkoa 26.714) 100 euro.

Kattalin elkartearen loteria Azkue argazki dendan kobratu behar da

Kattalin Bularreko Minbizidunen elkarteak 81748 zenbakiaren partaidetzak saldu zituen Gabonetako Loterian, eta saritua izan da. Partaidetza bakoitzak, 15 euroko saria izan du. Azkue argazki dendan kobratu daiteke dirua, hilaren 18tik aurrera.

C.D. Elgoibarren otarrak badu jabea

Agertu dira Club Deportivo Elgoibar futbol taldeak, urtero, Eguberrietan, zozkatzen duen otarra erraldoiaren irabazlea: 1. saria Roberto Areitioaurkena zaldibartarrak eskuratu du 29.958 zenbakiarekin, eta 2. saria Luken Zabaleta elgoibartarrarentzat izan da, 16.799 zenbakiarekin. Batak zein bestek jaso dute saria.



Euskal presoen eskubideen aldeko mobilizazioak izan ziren zapatuan



Sarek deituta euskal presoen eskubideen aldeko mobilizazioak egin zituzten zapatuan Euskal Herriko hiri eta herrietan, tartean Elgoibarren eta Mendaron. Urte hasieran Bilbon egin ohi duten manifestazioa ezin izan dute ohiko moldean egin aurten osasun egoera dela-eta, baina herri guztietan aldarrikapen bera egin zuten. Besteak beste eskatu zuten euskal preso guztiak Euskal Herri-ratzea, gradu progresioan dagoen blokeoa askatzea eta espetxe baimenak lortzeko zailtasunik ez egotea. Sarekoek esan zuten presoak "eskubideen subjektuak" direla, eta beren eskubideak bete ditzatela eskatu zieten Eusko Jaurlaritzako eta Espainiako zein Frantziako Gobernuari. EAJk zapatuko mobilizazioetan ez parte hartzea erabaki zuen. Alderdiko legebiltzarkide Irune Berasaluze mendarorarik errespetua adierazi zion Sareren mobilizazio deialdiari, "baina uste dugu negoziazio politikorako, akordiorako eta lan parlamentariorako garaia dela, ezartzen zaien salbuespenezko espetxe politika amaitzea nahi badugu". Berasaluzeri erantzunez, Sareko bozeramaile Joseba Azkarragak esan zuen uste dutela "bateragarriak" direla: "Gobernuak ez dira berez mugitzen, mugiarazi egin behar dira".

Aste berean bi aldiz egin dute lapurretan Aita Agirre Kultur Kafean

Aita Agirre Kultur Kafean bi lapurreta izan dira denbora tarte laburrean. Urtarrilaren 5ean Udaltzaingotik deia jaso zuen Joseba Quintas Kultur Kafeko arduradunak tabernan lapurreta izan zela jakinaraziz. Goizaldean ate nagusiko zarraila kenduta sartu ziren barrura eta segurtasun kamerak buelta emanda aurkitu zituzten tabernako arduradunak eta polizia. Kutxa erregistratzailea eta zerbitzarien itsulapikoetako bat lapurtu zituzten; Joseba Quintasek esan zuenez 500 bat euro. Hilaren 5eko lapurretaz gain, zapatuan, goizeko 2:00etan berriz modu berean sartu ziren lapurrak Kultur Kafean eta kutxa zegoen dirua eramane zuten.



Adinekoen egoitzetan urtarriletik apirilera arteko aldi baterako egonaldietarako eskabideak aurkezteko epea zabalik dago

Gipuzkoako Foru Aldundiak adinekoen egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko programa du eta Elgoibarko Udaleko Gizarte Ongizate Sailak aditzera eman du urtarriletik apirilera arteko eskabideak aurkezteko epea ireki dutela. Apirilaren 8ra arte egonaldi luzeak eskainiko dituzte (6 gautik gorakoak) eta hilabete osoko egonaldiak eskatu ahal izango dira. Eskakerak, gutxienez, egonaldiaren hasiera baino 15 egun lehenago egin behar dira Gizarte Ongizate sailean. Horretarako hitzordua eskatu behar da HAZera joanda zein 943 741 050 telefonora deituta.

Pentsio duinen alde bihar Eibarren egingo duten manifestaziora joateko deia egin du Gaugerora Duintasuna Pentsiodunen Taldeak

Elgoibarko Gaugerora Duintasuna Pentsiodunen Taldeak eta eskualdeko gainerako herrietako taldeek pentsio duinen aldeko manifestazioa antolatu dute biharko, eta herritarrei dei egin diete bertan parte hartzeko. Eibarren izango da, 12:00etan, Untzaga plazatik abiatuta. Pentsioek jasaten duten "erasoagatik" hasi ziren mobilizazioetan orain dela lau urte. Besteak beste, Europako gutun sozialak gomendatzen duen gutxieneko 1.080 euroko pentsioa eta 1.200 euroko gutxieneko soldata aldarrikatzen dituzte. Baita ere alarjuntza pentsioak %100 kobratzea, "eta ez %60 edo %52, gaur egun kobratzen diren bezala". Euren borrokari esker alarjuntza pentsioak %60ra igotzea lortu dutela esan dute, eta borrokan jarraituko dutela adierazi dute.




Dei berezia egin dute odola ematera hurbiltzeko, erreserbak behera egin duelako

Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteak jakinarazi du odol ateratzeak egingo dituztela gaur, 16:30etik aurrera, Jubilatuen Bil-tokian. Odola emateko txanda hartu behar da watssap zenbaki honetan: 623 328 408. Dei berezia egin diete oraingoan herritarrei, odol bankuko kopuruak behera egin duelako. Euskadiko Odol Emaileen Elkartearen esanetan Eguberrietan eta horien ostean odol-emateak erdira jaisten dira eta COVID-19agatik ere odol-emate kopuruak behera egin du. 60.000 dira odol-emaile ohikoak, baina beharrak asetzeko 8.000 gehiago behar dituzte. Izan ere, egunero 400 odol poltsa behar dituzte Osakidetzako zentroetan, eta une honetan 320 poltsa bakarrik jasotzen dituzte, hau da, behar duen odolaren %80a.

Deba ibaiak gainezka egin zuen berriz domekan, eta ohiko lekuetan bere bidetik irten zen ura, kalteak eraginez

Deba ibaiaren ur emaria maila gorrira gerturatu zen domekan Altzolako estazioan, eta ohiko lekuetan gainezka egin zuen urak. Ur emariak Altzolako estazioan maila naranja gainditzen duen orotan bezala, oraingoan



Alzola

ere Kilimon erreka bere bidetik irten zen Mendaroko Garagartza auzoan. Gau luzea izan zen beste behin ere Garagartza auzoko bizilagunentzat, eta errekarri begirik kendu gabe pasatu zituzten orduak. Suhiltzaileen laguntza izan zuten eta saiatu ziren urak bere bidea jarrai zezan, baina ez zuten lortu, eta biharamunean garbiketa lanak egin behar izan zituzten. Altzolan ere Bainuetxeko Zumardia urak hartu zuen, eta Alzola Basque Water enpresan berriz ere sartu zen ura. Duela hilabete kalte handiak eragin zituzten ufalek enpresan, eta oraingoan ere bai, orain dela hilabetekoak baino txikiagoak izan diren arren. Iturburutik ura jasotzeko duten gela ur azpian gelditu dela jakinarazi dute. Mendi eta baserri bideetan ere hainbat kalte eragin zituen urak. Dena dela, kalteak ez dira abenduan bestekoak izan.



Mendaro

Tuteran izandako emakume baten hilketa salatzen elkarretaratzea egin dute



38 urteko emakumezkoa hilik aurkitu zuten astelehen goizean bere etxean Tuteran, indarkeria zantzuekin, eta indarkeria matxistaren biktima izan zitekeelakoan, haren senarraren bila hasi zen Polizia. Frantzian aurkitu zuten, Boisedon-en, eta atxilotu egin zuten. Emakumearen hilketa salatzen elkarretaratzeak egin zituzten herrietan, eta Elgoibarren ere bai, EHBilduk deituta.

'Zure txakurra, zure ardura' kanpaina jarri du abian Elgoibar Lagunkoiak



Herritarren eta txakurren arteko bizikidetzan sakontzeko asmoz, *Zure txakurra, zure ardura* kanpaina jarri du martxan Elgoibar Lagunkoia taldeak. Txakur kakak biltzea jabeen ardura dela gogorarazteko *Zure txakurra, zure ardura* leloa duten kartelak jarri dituzte herriko berdeguneetan. Egitasmo honekin maskoten jabeak kontzientziatu nahi dituzte, bizikidetzara zagoa izan dadin jarraibide txiki batzuk betetzen saia daitezten. Elgoibarko Udalak, bestalde, 2022rako aurreikusitako inbertsioen artean txakur-parkeak eraikitzen asmoa du.



ABIATUekin, askoz gehiago!

A-636 Beasain-Bergara autobian ere bai.

Urtarrilaren 18an jartzen da abian **A-636 Beasain-Bergara** autobiko bidesari berria.

Ibilgailu guztiek nahitaez ordaindu beharko dute, motozikletek izan ezik. Bidesaria **FREE FLOW** sistema bidez, hau da, matrikula irakurtzeko arku bidez kudeatuko da.



Gipuzkoan bizi diren autobien erabiltzaileentzat aukerarik onena **BIDEGIren ABIATU** gailua edukitzea da. Gainerakoentzat, nahikoa izango da edozein VIA-T gailu edukitzea.

✓ AURREZPEN HANDIAGOA (ABIATUekin soilik)

Tartekako deskontuak.
Hileko gehieneko gastua.

✓ INBERTSIO HANDIAGOA

Bildutako dirua errepidea hobetzeko eta mantentzeko erabiliko da.

ABIATUri eta bidesari berriari buruzko informazio gehiago:

www.bidegi.eus

☎ 943 105 106


✉ info@bidegi.eus




Euritan eta lokatzez gainezka itzuli da krosa

Urtebeteko etenaren ostean, krosa atletismoko proba berezi eta gogorenatarikoa egiten duten ezaugarri guztiakin itzuli da Mugertza krosa. Euria barra-barra ari zela jokatu zituzten zortzi lasterketak, alebinen eta infantilen lasterketak bertan behera laga baitzituzten azken orduan, pandemia dela-eta. Maskaren eta koronabirusa ez hedatzeko segurtasun neurrien edizioa izan da aurtengoa, antxixikariak ere maskara jantzita ibili baitziren Mintxetako kirolgunean, lasterketak hasi baino segundo batzuk lehenagora arte, eta helmuga marra gurutatu ostean berriro jantzi zituzten krosaren boluntarioek emandako maskarak. Neurrien gaintik, baina, atletismoaren festa handia izan zen beste behin ere Mintxetan, eta esan moduan, eguraldia ere batu zen festara. Ohiko aldapez gainera, saltakariak korrika egitea zailtzen zuten lokatz guneak eta tamainako potzuak aurkitu zituzten ibilbidean. Behea, bustita, eta, goitik, euria etengabe. Harmailetatik kanpo zeuden ikusleentzat ere ez zen erraza izan krosa jarraitzea, eurari haizea ere gehitu baitzitzaion azken lasterketetan. Krosa benetan gogoko duten lagunak izan behar derrigorrean igerilekuen inguruan batu ziren lagunak. Lehiari dagokionez, faborito nagusiak ez ziren bi atleta kenyar gailendu ziren senior mailako lasterketetan. Emakumezkoetan Edimah Jebitok (Kenya, 2001) izan zen azkarrena. 20 urteko saltakariak aurkari guztiak atzean laga zituen aurreneko itzuli luzearen amaieran, eta bakarrik helmugaratu zen. Gizonezkoen lasterketa nagusia irekiagoa izan zen, eta ez zen amaierara arte erabaki. Azken metroetara arte elkarrekin izan ziren Nicholas Kipkorir Kimeli (Kenya, 1998) eta Adissu Yihume (Etiopia, 2003), baina Kimeli indartsuagoa izan zen, eta sei segundoko aldea atera zion helmugan Yihuneri.










Omenduak

Azken hilabeteetan zendu diren Mugertza krosaren "bost lagun" omendu dituzte antolatzaileek aurtengo krosean. "Inoiz ez da erraza horrelako proba bat antolatzea, pandemia ez badago, krisi ekonomikoa hor dago, eta Elgoibarko herri osoaren babesik gabe ezinezkoa zatekeen proba antolatzea. Horregatik, ezinbestekoa da bidelagun izandakoei esker ona adieraztea eta joaten direnean haien oroimena gordetzea" azaldu zuten. Honakoak dira bost omenduak: Fermin Arrese, hainbat urtean krosaren antolatzaile nekazina izana; Bego Gil, urte luzez boluntario izandakoa; Lucas Larraza, proba lau aldiz irabazitako korrikalaria; Alejandro Gomez, atleta oso maitatua eta Agnes Tirop, 2018ko irabazlea. Azken hori, indarkeria matxistaren biktima izan zen iaz bere herrialdean, Kenyan. Gogoan izan zituzten zapatuan, atletei eginiko ongi etorrian eta baita lasterketa egunean ere, minutu bateko isilunea eginda.





Miren Azkarate, Adolfo Arejita eta Jesus Mari Makazaga 'Euskararen Gramatika'-ren aurkezpenean. Arg.: Iñaki Mendizabal.

“Gramatika ez da arauemailea, nahiz eta arauak aipatzen diren”

▶ JESUS MARI MAKAZAGA FILOLOGIAN DOKTOREA ETA EUSKALTZAIN URGAZLEA

Euskaltzaindiak 'Euskararen gramatika' berritu du, eta abenduan aurkeztu zuten lana, Durangoko Azokan. Gramatika Batzordeak landu du, eta batzorde horretako kide da Jesus Mari Makazaga (Elgoibar, 1965). Euskal Filologian doktorea da, eta EHUko irakaslea izateaz gain, EHUko Euskara Zerbitzuaren zuzendaria ere bada. 1990ean sartu zen Euskaltzaindiako Gramatika Batzordean, graduko ikasketak amaitu berritan beka batekin, Euskaltzaindiak eskura zuten Orotariko Euskal Hiztegirako corpusa maneiatzeko, eta 2003an euskaltzain urgazle izendatu zuten.

- AINHOA ANDONEGI -

♦ **Euskararen gramatikaren arauak, azalpenak eta adibideak bildu, osatu eta sakondu ditu Euskaltzaindiak, eta 'Euskararen gramatika' izenburupean argitaratu ditu. Lan mardula egin duzue. Zer jaso duzue lan horretan?**

Euskaltzaindiak emandako arauak jasozten dira gramatika berrian, hizpidera etortzen denean, baina nik ez nuke esango horregatik gramatika arauemailea denik; ez da gramatika teorikoa ere, nahiz kontuan hartzen dituen azken urteetan egindako ikerketa teorikoak; batez ere gramatika deskribatzailea da: gure idazle zaharrek, gure arbasoek euskara

nola erabiltzen zuten aztertu, eta azterketa horretatik ondorioak atera, deskribapena egin, gogorarazteko egitura jakin bat era jakin batean erabiltzen dela eta ez beste era batean... Gaur egungo gramatika da, baina euskararen tradizioa jasotzen da, noski, gaur egunera arteko tradizioa.

♦ **Zer garrantzi dauka lan honek? Zein izan da lan honen helburua?**

Helburua izan da XXI. mendeko gramatika bat egitea. Orain arte egin ditugun gramatikak (Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I-VII) eguneratu eta osatu, eta gaur egungo testuinguruan homologatutako gramatika bat egitea: katalanen (Institut

d'Estudis Catalans), galegoen (Real Academia Galega, RAG) eta gaztelaniaren (Real Academia Española, RAE) akademiek egindako gramatikekin homologatuta, edukiei, kontzeptuei eta terminologiari dagokienez.

♦ **Nola egin duzue lana? Talde-lana nabarmendu duzue.**

Bai, talde-lana nabarmenduko nuke nik. Kapitulu guztiak dute bere txostengilea, baina gramatika hau ez da hainbat egileren kapituluaren bilduma huts bat: kapitulu guztiak pasatu dira batzordetik eta beste batzordetara eskuetatik (bileretan, baina batez ere etxean egindako lana na-

barmenduko nuke: batzordekideek, beren kapituluaz gain, beste batzordekideen kapituluak aztertu behar zituzten, xeheki aztertu ere: kapitulu bakoitza gutxienez bi batzordekideek gainbegiratu behar zuten). Batzordean eman zaie azken ukitua eta azken onarpena kapitulu guztiei: adostasuna bilatu da, eta hartu beharreko erabaki guztiak denon artean hartu ditugu; alde horretatik begiratura, gramatika osoaren erantzukizuna batzorde osoarena da. Bestalde, gramatikaren edizio-lana ere zaila eta neketsua izan da, txostengile bakoitzak bere estiloa duelako: hala ere, estilo eta erredakzio-kontuetan batasuna eman nahi izan diegu kapitulu guztiei, ahal izan dugun neurrian. Inprentako probak zuzentzen eta gai-aurkibidea egiten ere ordu asko eman ditugu.

♦ **2.000 orrialdeko lana da. Azken hamar urteotan egin duzue, baina askoz lehenagotik hasi zineten oinarriak jartzten. Zeintzuk izan dira aurrekariak?**

Aurrekariak edo oinarriak batzordearen *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak* (EGLUak) gramatika sorta izan da, zazpi gutzira. Lehenbizikoa 1985ean argitaratu zen eta azkena 2011n. Haiak osatu, zuzendu eta eguneratu ditugu gramatika berria osatzeko. Izan ere, lehenbiziko bi EGLUetan ez genituen eskura gaur egun ezinbestekoak diren lan-tresnak: datu-baseak, corpusak, baliabide informatikoak... Lehenbiziko bi liburukietan lan handia zegoen hango edukiak osatzeko, zuzentzeko eta eguneratzeko.

♦ **Hizkuntzak bizirik daude, aldatu egiten dira. Egon al da 80ko edo 90eko hamarkadan argitaratutako lanetatik oraingora aldaketarik?**

Bai, jakina! Unibertsitateetan euskal ikasketak eskaini dira 80tik aurrera, eta arloaren ikuspegia asko aldatu da harrez geroztik: artikuluko akademikoak, doktoretza-tesiak, argitalpenak... milaka egin dira, eta horrek asko aldatu du arloaren egoera: asko aurreratu da arloko ezagutza (beste arloetan bezala), eta ezagutza berri hori gure gramatikan ere txertatu nahi izan dugu, guk geuk kontsultatuz edo ka-

suan kasuko adituei kolaborazioa eskatuz.

Esan duzu hizkuntzak bizirik daudela: egia biribila... Hizkuntza-egitura batzuk zaharkituta geratu dira; eta berriak sortzen dira; berriagoetan, batzuk ondo txertatu dira euskaldunen artean: gramatika berria, begiratu diogu tradizioari, baina gaur egungo egoerari eta etorkizunari ere bai. Gaur egungo erabiltzailearentzat egin dugu. Batez ere jaso eta aztertu ditugu gaur egungo euskaldunak eskura dituen egiturak, eta ia maila anekdotikoan utzi ditugu egitura zaharkituak, eta jadanik erabiltzen ez direnak.

“Batez ere jaso ditugu egungo euskaldunak eskura dituen egiturak, eta ia maila anekdotikoan utzi ditugu egitura zaharkituak eta jadanik erabiltzen ez direnak”

♦ **Datorren hamarkadan erreferentziala izatea nahiko lukeela esan zuen Miren Azkaratek aurkezpenean. Zein erabilerara izango du lan honek? Norentzat izango da?**

Ez da erraza gramatika bat egitea, eta ez dira asko egiten. Talde-taldean, are gutxiago. Horregatik, urte batzuetan gramatika-lanetan erreferente izango dela uste dugu. Euskara lanbidetzat duen edozein profesionalentzat da: euskara irakasleentzat (batxillerrean, euskaltegietan, unibertsitatean...), euskara-teknikarientzat, itzultzaileentzat... euskararen inguruko ikasketak egiten ari diren ikasleentzat (filologo, itzultzaile...).

♦ **Jaso duzuen gramatika arauemailea da ala informatiboa? Euskaraz zuzen idazteko arau horiek betetzera derrigortuta gaude ala zuzena izateko egon daitezke aukera bat baino gehiago?**

Lehen esan bezala, ez da arauemai-

lea, nahiz arauak aipatzen diren. Euskara batuan ari garela, arauak errespetatu egin behar dira; baina euskaraz gauza asko ez daude araututa (hiztegiak eta aditzak aparte), eta hor sartzen dira estilo-kontuak: beti daude aukerak ideia baten berri beste era batera emateko, eta zuzenak denak. Inork ez gaitu derrigortzen nola idatzi behar dugun, euskara batuko arauetatik aparte, bai eta euskararen arauetatik aparte: egitura okerrak hobe litzateke ez erabiltzea, nahiz kalean entzuten ditugun.


♦ **Zein berriak jaso dituzue lan honetan?**

XXI. mendeko gramatika, kontzeptuetan eta terminologian, formalki ere idazlan trinkoagoa eman diogu liburuari, literaturako adibideak testuan bertan txertatuz. Adibideak gaur egungo grafiarekin jarri ditugu eta azken urteetako adibideei pisu handia eman diegu; literatura zaharreko adibideei pisu txikiagoa, eta laburtuta eman ditugu, erabiltzaileak errazago ulertzeko.

Edukien aldetik, ‘hitz ordena’ kontzeptua ikuspegi zabalago batetik aztertu da, eta ‘sintaxi egitura’ eta ‘informazio egitura’ bereizi dira; ‘deklinabide’ eta ‘kasu-sistema’ kontzeptuak bereizi ditugu, bai eta ‘kasu atzizkiak’ eta ‘postposizio atzizkiak’ ere; argumentu egiturak’ eta ‘paper tematikoak’ kontuan hartu ditugu aditzen sailkapena egitean, eta hitz elkarketa eta eratorpena aztertzean; morfologia lexikolari zazpi kapitulu eskaini dizkiogu: Euskaltzaindiak hitz-elkarketaz argitaraturiko lau liburukiak laburtu eta eratorpen-atzizkiak banan-banan aztertu ditugu; izenari, adjektiboari, izenordainari, adberbioari, determinatzaileari eta aditzei eskainitako kapituluak sakonki berriro ditugu...

♦ **Non kontsultatu daiteke Euskararen Gramatika?**

Oraingoz papereko formatuan bakarrik dago eskura. Hemendik denbora batera sarean kontsultatzeko moduan eskainiko dela agindu zuen euskaltzainburuak liburuaren aurkezpenean, “gehiegi luzatu gabe”. Urtebetera edo bi urtera izango da, baina nik ezin dut alde zurrik zehaztu.



Mari Carmen Arrese Iriondo


2022ko urtarrilaren 8an hil zen, 59 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Mari Carmen Arrese Iriondo

Beti izango zara gure bihotzetan.

Anbulatorioko lankideak




Mari Carmen Arrese Iriondo

2022ko urtarrilaren 8an hil zen, 59 urte zituela.

***Zure irribarre goxoa eta maitasuna
betirako izango dira gure artean.***

Arrese familia



***Izan zarena,
erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da
zugandik jasotako dena.***

Etxekoak

Teresa Arriola Garate

2022ko urtarrilaren 8an hil zen, 88 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Errege magoen bisita azkarra

Zaldi gainean egin zuten Elgoibarrera eta Mendarora bisita Melchor, Gaspar eta Baltasar erregeek. Kaleetan zain zeuden ume zein nagusiak agurtu zituzten. Covid19ak baldintzatutako kabalgata izan da aurtengoa Elgoibarren eta erregeak ez zituzten umeen eskaerak aurrez aurre jaso. Mendaron ere bestetan baino jende gutxiagorekin egin zuten desfilea. Hala ere, ume bakoitzak bere gustuko erregearekin hitz egiteko eta opariak eskatzeko aukera izan zuen. Murrizketak murrizketa umeen ilusioa piztu zuten erregeek eta txikiak oparien zain geratu ziren.



Elgoibar



Elgoibar



Elgoibar



Elgoibar



Mendaro



Mendaro



Mendaro

Gatz gutxiko pertsonia: Soso / -a.
Horrek etxakak gatzik txistiak kontatzeko.

Bertso saio musikatua izango da urtarrilaren 21ean Makina Erremintaren Museoan

Ez da kasualitatea izenburupean bertso-saio musikatua egingo dute datorren barikuan, urtarrilaren 21ean, 19:00etan Makina Erremintaren Museoan.

Elgoibarko Udalak eta Makina Erremintaren Museoak elkarlanean antolatutako saioan Uxue Alberdi, Onintza Enbeita eta Miren Amuriza bertsolariak arituko dira kantuan, Maite Berriozabal gai jartzailearen esanetan. Musikariak, berriz, Gari Otamendi (biolina) eta Ixak Arruti (gitarra) izango dira.



Emakumezkoak

Ez da kasualitatea saioetako bertsolariak eta gai-jartzailea emakumezkoak izaten dira beti eta egitasmoa abian jarri zutenen esanetan, "oraindik, zoritxarrez, gizonetzko osaturiko saioak baino ez dira kasualitatez izaten. Denak emakumeak izate horretan derrigor dago intentzio bat. Gure helburua noiz-

bait halako saioak kasualitatez, urteko edozein egunetan eta pentsatu gabe ere irtetea litzateke, baina bitartean intentzio osoz antolatzen ditugu". Umorea, jolas, gogoeta, emakumeen arteko konplizitatea, musika eta bertsoa uztartzen dituen emanaldia egingo dute Elgoibarren doinu ezagunak eta musika lagun.

Sarrerarik ez

Doakoa izan arren aurrez izena eman behar zen eta jadanik agortu dira sarrerak. Hala ere, itxarrote zerrenda dago eta akaso bigarren saio bat egitea aztertzen ari dira. 943 74 84 56ra deitu edo museoa@museoa.eus helbidera idatzi behar da eskaria egiteko.

Elgoibarko Dultzaineroak omenduko dituzte aurtengo zigilu erakusketan

San Anton jaietako ohiturari jarraituz, zigilu erakusketa antolatu du Altzolarren Dorretxea filatelia elkarteak. XLIII. edizioaren inaugurazioa bihar, urtarrilaren 15ean, egingo dute 11:00etan, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Aurten Elgoibarko Dultzaineroak omenduko dituzte zigilu elkartekoek, izan ere, 50. urteurrena beteko dute-eta. Hori dela-eta, zigilu-markatzeko berezi bat (Cynthia Pazpiñok egina), txartel bat eta zigilu personalizatu bat prestatu dituzte. Inaugurazio egunean zigilu-markatze berezia egingo dute.

Elgoibarko dultzaineroak (Victor Zubiaurre, Txomin Mujika eta Ricardo Gorriti) 1972an hasi ziren herriko kaleetan beren doinuak joz. Umetatik izan zuten gustuko dultzaina soinua, baina tresna egokiak lortzea izan zen beren bidean pausorik zailena. 1972an hasi baziren ere, 1989tik San Bartolome jaietan jotzen dute eta gaur egun Sanantonetan eta Trinitateetan, eta baita hilean behin Bandako kontzertuko egunean ere. 2011n Victor Zubiaurre hil zenean Aitor Novak hartu zuen bere lekua. 50. urteurrena modu berezian ospatuko dute irailean, baina oraindik egitaraua lotzeko dute.

Zigiluen erakusketa urtarrilaren 22ra arte egongo da ikusgai astegunetan 18:30etik 20:30era eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era. 22an bertan Filatelia Elkartearen Euskal Federazioaren asanblada egingo dute 11:00etan Kultur Etxeko hitzaldi gelan. 13:00etan, berriz, eskerrak emateko ekitaldia eta oroigarri banaketa egingo dute Kultur Etxeko sotoan.



'Go!azen 8.0, Pausoka' musikalerako sarrerak agortu egin dira



Domekan, urtarrilaren 16an, Goazen 8.0 taldearen *Pausoka* kontzertuak izango dira goizean eta arratsaldean. Goazen telesaileko protagonistek eskainiko dituzte emanaldiak Herriko Antzokian. Pertsonaia ezagunak eta berriak elkarrekin arituko dira hainbat denboralditako kantak eskainiz. Telesailaren arrakasta ikusita, musikalerako sarrerak ere agortu egin dira.

'Greenpiss' antzezlan atzeratu egin dute eta urtarrilaren 21ean izango da

Yllana antzerki taldea *Greenpiss* ikuskizuna eskaintzekoa zen Herriko Antzokian gaur, baina urtarrilaren 14tik 21era aldatu behar izan dute emanaldia. Orduategia bera izango da: 20:30.

Ekologiari, gure planeta-
ren etorkizunari eta gure espeziearen biziraupenari buruzko satira dibertigarria taularatuko dute Fidel Fernandez, Luis Cao, Juanfran Dorado eta Jony Elias aktoreek. Berotze globala, plastikoen gehiegizko erabilera, kontsumismo zoroa, animalia-espezieen desagertzea eta gure espeziearen balizko desagertzea dira antzezlan ero honen abiapuntuak.

Lau aktoreek pertsonaia ugari interpretatuko dituzte, politikarietatik hasi eta pinguino, oilo zein zuhaitzetara arte, guztion ahotan dabilen gai bat jorrazteko eta konpontzeko umore garratza erabiltzea eta oztoporik gabe aurre egitea proposatuko du Yllanak. Bertaratzen diren ikusleei gogoeta eginarazteaz gain, barrea eragitea da aktoreen asmoa.

Sarrerak erosita izan eta joaterik ez dutenei zenbatekoa itzuliko diete. Egunean bertan sarrerarik egonez gero, salgai jarriko dituzte Herriko Antzokiko leihatilan.



Arineketan taldearen kontzertua antolatu du Musika Eskolak

Astelehenean, San Anton egunez, Arineketan taldearen kontzertua izango da Herriko Antzokian 12:30ean Inazio Bereziartua Musika Eskolak antolatuta. Iñar Sastre piano-jotzailearen eta Jagoba Astiazaran txistulariaren proiektu bateratua da Arineketan. J.I. Iztueta folklore biltzaileak jasotako euskal doinu zahar eta erritmoei hautsak kendu eta sorkuntza propioak egin dituzte. Txistua eta pianoa bateratuz jolasak eta dibertsioak bat egingo dute ikuskizunean eta musikariek ezezik bi dantzarik ere hartuko dute parte emanaldian.

Hilaren 28ra arteko epea orri-markagailu lehiaketan lanak aurkezteko

Elgoibarren 675. urteurrena gaitzat hartuta orri-markagailu lehiaketa antolatu dute Elgoibarren erroldatutako edo bertan ikasten duten haur eta gazteentzat, bi mailatan banatuta: LH5era artekoak eta LH6tik aurrera. Lana aurkezteko azken eguna urtarrilaren 28a da. Orri markagailuek 210 mm.-ko luzeera eta 50 mm.-ko zabalera izan behar dute eta paperean edo pdf formatuan aurkeztu behar dira Gotzon Garate Udal liburategian edo liburutegia@elgoibar.eus helbidean izen-abizenak eta ikasurtea adieraziz, markagailuaren atzeko aldean edo mezuan. Maila bakoitzeko sarituak tablet bat jasoko du eta lanak liburutegiak argitaratuko dituen aurtengo markagailuetan agertuko dira.

Gipuzkoako Kintopeko Ligako finala jokatuko dute Sigmako probalekuan San Anton Egunean

Kintopekoen V. Saizar Idi-Dema Txapelketa jokatuko dute urtarrilaren 17an, San Anton Egunean, Sigmako probalekuan. Gipuzkoako Kintopeko Ligako hiru idi pare onenak lehiatuko dira Elgoibarren, Ligako finala izango baita: Oriden (Orio), Bixkiak (Errezil) eta



Arg.: Ibon Erraitzu

Olatzar eraikuntzak (Lezo). 21:00etan hasiko da uztarri onenen arteko lehia. 1.700 kiloko harriarekin aritu beharko dute idi pareek. Pisaketa, berriz, ohi bezala goizean izango da. 1.140 kilo pisatu beharko dituzte idi pareek; hortik gorako kilo bakoitzeko, kilo eta erdiko gainzama eraman beharko dute abereek. Irabazleak 1.400 euro, mantak, txapela eta garaikurra eskuratuko ditu, 1.200 euro bigarrenak eta 1.000 euro hirugarren sailkatzen denak. Gipuzkoako bost idi-dema elkartek antolatzen dute idi gazteentzako txapelketa hau: Sigmako probaleku elkarte, Gazte-tandik, Aiako Idi-Probak Elkarte, Aipe Aizarnazabalgo Probazale Elkarte eta Azkoitiko Jo Ta Txikiu Idi-Proba Elkarte. Saizar sagardotegia da Ligako babeslea.

Krosari buruzko marrazki lehiaketarako lanak aurkezteko epea urtarrilaren 26ra arte luzatu dute

Urtarrilaren 26ra luzatu du Udalak Mugertza krosaren marrazki lehiaketarako lanak aurkezteko epea. Min-txeta Atletismo Taldeak eta Elgoibarko Udal Ludotekak marrazki lehiaketa jarri zuten abian abenduan. Lehiaketan herriko LH1-LH6 bitarteko edozein haurrek har dezake parte. Lasterketa-rekin lotuta dagoen lehiaketa denez, lanek herriaren eta lasterketaren arteko



harremana irudikatu beharko dute. Teknikaren kasuan ez da inongo araurik egongo, eta librea izango da: kolorezko arkatzak, errotuladoreak, tintak, akuarelak, collagea eta abar, bakoitzak erabakiko du zein erabili. Hori bai, antolakuntzatik eskatu dute marrazkiak 220 x 300 milimetrotako (A4) lamina normalizatuetan aurkezteko, lanen aukeraketa errazteko asmotan. Lanak Udalaren Herritarren Arreta Zerbitzura (HAZ) eraman, edo ludotekaelgoibar@gmail.com helbidera zein 656 740 793 WhatsApp zenbakira bidali beharko dira. Dena den, marrazki bakoitzaren atzean izenburua edo leloa bakarrik jarri beharko da, eta sobre itxi batean parte hartzailearen izen abizenak, ikasmaila eta telefono zenbakia. Sobrean aurkeztutako marrazkiaren leloa ere idatzi beharko da. Sariak herriko dendetan erosteko hainbat bono izango dira.



Loterian egokitutako dirua banatzen hasi da Sanlo

Abenduaren 22ko Gabonetako Loterian 63957 zenbakiaren partizipazioak saldu zituen Sanlo kirol taldeak, eta txartel bakoitzaren jabeak 15 euro jasoko ditu trukean. Sarituei dirua ordaintzeko izan den atzerapenak sortu duen zalapartaren berri ailegatu zaiela azaldu dute Sanloko arduradunek, eta atzerapen horren arrazoiak argitu dituzte. "Sarituei guztiek dagoen saria bere osotasunean kobratzea ziurtatzea izan da gure asmoa hasieratik, alegia, bankuek ez dezatela sariaren zatirik eraman, komisiorekin. Tokatu zaigun sarituei zentimo bakar bat ere galduko ez dugula ziurtatu nahi dugu, klubak eta Sanlo osatzen dugun familiak saria oso-osorik jasotzea me-rezi dugula sinisten dugulako". Behin arrazoiak azalduta, eguaztenean, urtarrilaren 12an hasi ziren loterian egokitutako dirua ordaintzen Olaizaga kiroldegian, 18:30etik 20:30era. Guztira 135.000 euro banatuko ditu Sanlok, 9.000 partizipazio saldu baitzituzten. Sanlotik zehaztu dute saritutako txartelaz gainera, kontu zenbaki bat eman beharko dutela sarituei, dirua bertara bideratzeko.

Euskal Ligari eutsi diote Sanloko nesken taldeek

Euskal Ligan diharduten Sanloko nesken CIMDE (jubenilak) eta Salento Gelati (kade-teak) taldeek, jardunaldi baten faltan lortu zuten mailari eustea eta beste urte batez arituko dira Euskal Ligan. Denboraldiko helburu nagusia lortu duten arren, denboraldia ez da amaitu eta jokoan dauden tituloak eskuratzeko lehiari jarraituko dute bi taldeek.

Gaur jokatuko dituzte San Anton Pilota Txapelketako finalak

Lagunak Pilota Eskolak antolatzen duen San Anton Pilota Txapelketako finalak jokatuko dituzte gaur, 22:00etatik aurrera, Ikastolako frontoian. Joan den barikuan eta zapatuan jokatu zituzten finalerdietan lortu zuten finalerako txartela lau bikotek. Promesa mailako finalean Egiguren eta Iztuetak Amiano eta Ugartemendia izango dituzte aurkari. Lehenengoek 22-11 irabazi zieten Aranbarrik eta Belokik osatutako bikoteari. Bigarrenengoek Irribarria II eta Lazkoz kanporatu zituzten finalerdietan, 22-15eko emaitzarekin. Senior mailako finalean, Matak eta Morgaetxeberriak osatutako bikoteak Igoa eta Arbizu izango dituzte aurkari. Igoak eta Arbizuk Alberdi eta Aizpuru gainditu zituzten finalerdietako neurketan (22-8); eta, Matak eta Morgaetxeberriak 22-15 irabazi zieten Expositori eta Irastabarrenari, finalerdietako kanporaketan.



2022ko mendiko federatu txartelak jasotzeko epea zabalik

Morkaiko Mendizale Elkartetik jakitera eman dute 2022ko federatu txartelak iritsi direla. Federatu direnek Goar aholkularitzan jaso beharko dituzte federatu txartelak, honako ordutegian: 9:30-14:30 eta 15:30-19:30 (astelehenetik eguenera) eta 9:30-14:30 (barikuetan). Bestetik, Euskal Mendizale Federazioak (EMF) 50 egutegi inguru eman dizkio Morkaikori bazkideen artean banatzeko. Horiek elkarteak Errosario kalean duen egoitzan eskuratu daitezke, bukatu arte. Egoitza asteazkenetan egoten da zabalik 19:00etatik 20:15era.



Euskal Herriko Koparako puntuagarria izango da Kilimon Trail mendi lasterketa

Euskal Mendi Federazioak (EMF) 2022. urterako mendi lasterketen txapelketen egutegia aurkeztu zuen abenduan, eta Mendaron jokatzeko den Kilimon Trail proba Euskal Herriko Koparako puntuagarria izango da aurrenekoz, probaren hamargarren urteurrenean, hain justu ere. Bost lasterketek osatuko dute Kopa. Lehenengo proba martxoaren 19an jokatuko dute, Kola-zinoko Mendi Eguna, Bedian. Koparako bigarren proba puntuagarria izango da Kilimon Trail. Apirilaren 2an jokatuko da Lizarpe Mendi Klubak antolatzen duen 23 kilometroko mendi lasterketa. Dagoeneko zabalik dago proban parte hartzeko izen ematea (<https://kilimontrail.com/>). Gogoratu behar da bi distantziako probetan lehiatzeko aukera dagoela, 11 kilometrokoan eta 23 kilometrokoan. Kopako gainerako hiru probak honakoak izango dira: Amurrio Trail (ekainak 6), Labastida Trail (uztailak 7) eta Urduñako Mendi Lasterketa (azaroak 13).



LANA.....
Eskaerak

Asteburuetan eta jai egunetan lan egiteko prest nago. Orduka, eta gabez ere bai. Adinekoak zaintzen, sukaldean eta garbiketa lanak egiten esperientzia daukat. ☎ 625 910 116

Adinekoak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo beste edozein lanetarako prest nago. Esperientzia daukat. Agiriak legez ditut, eta gidabaimena eta autoa ere baditut. ☎ 689 571 882

Arratsaldetan LHko eta DBHko klase partikularrak emateko prest nago. Gizarte Lana, Gizarte Hezkuntza eta Psikologiako graduak ikasten ari naiz. ☎ 649 446 529

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan eta baita aste-bukaeretan ere. ☎ 631 425 686

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan eta baita aste-bukaeretan ere orduka. ☎ 643 584 198

Pertsona nagusiak zainduz lan egiteko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Garbiketa lanetarako ere prest nago, etxeetan edo bulegoetan. ☎ 641 322 939

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Arropak garbitzen eta lisatzen esperientzia daukat. Ospitalean gauak pasatzeko ere prest nago. ☎ 643 427 770

Adinekoak zaintzeko prest nago, ospitalean ere bai. Igeltsero, pintore, edo fresatzaile lanetarako ere prest nago. Paperak legez ditut. ☎ 634 692 962

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 688 739 536

Eskaintza

Umeak zaintzeko pertsona bat behar dugu. Goizez eta arratsaldez. ☎ 676 298 561

Bi mekanikari behar dira, doikuntza eta muntaia lanetarako. Curriculumak Zarauzko 309 posta-kutxatilara bidali behar dira.

Zerbitzari euskalduna behar da. ☎ 652 746 246

GARAJEAK.....

Garaje marraduna alokatzen dut, Pedro Mugurtza 11n. ☎ 669 916 148 / 943 531 648

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Asesor de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoako Finantza Administrazioaren Kontseilua

Lokaleko atea kaltetu diote gure komunitateko jabe bati, eta orain ezin du atea ondo itxi. Eta lokal-jabe horrek komunitateari eskatzen dio orain atea aldatzea. Batzarrean aztertu dugu gaia eta jabe bati ez daude konforme konponketa hori komunitatearen gain uzteko, beste kasuren batean eurek aldatu edo konpondu behar izan dituztelako euren atea.

Zure galderari erantzunez zera esango dizut: komunitateko jabe bati baten lokal, ganbara edo etxebizitzako atean izandako kalteak konpontzea jabe bati berari dagokiola.

Era berean, legeak argi dio jabe bati guztiei dagokiela erabilera pribatuko elementu komunak -terrazak esate baterako- behar bezala zaintzea. Lokaleko edo etxebizitzako atea jabetza pribatukoak dira, eta beraz, jabe bati berari dagokio kalteak konpontzea. Beste kontu bat litzateke kalte horiek zeinek eragin dituen jakingo bagenu.

AHOLKUA: Ezin dugu komunitatearen gain laga jabetza pribatuko elementuetan izandako kalteak konpontzeko erantzukizuna.



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo ☎ 688 634 044 bidalita.




Zorionak, **Intza**, zure 4. urtebetetzean. Jarraitu horrelako alai eta xalada! Patxo potolo bat fami-liakoen partez.



Zorionak, **Lucia**, 7 urte bete dituzelako. Segi orain arte bezain alai. Asko maite zai-gutu! Muxu handi bat!



Zorionak, **Beñat eta Nere**, 9 eta 7 urte bete dituzelako. Muxu handi bana, etxeko denon partez.



Zorionak, **Adolfo eta Lur**, urteak bete dituzelako. Ederki pasa genuen! Zuengatik, topa!



KONTSULTATEGIA




4 eta 6 urteko nire alabek hortzak bakarrik garbitzen dituzte. Nola jakin dezaket garbiketa ondo egiten ari diren?



Garrantzitsuena hortzak egunean hiru aldiz garbitzea eta garbiketa bakoitzean hiru minutuz eskuilatzea da. Farmazian plaka kontrolatzen laguntzen duten pilulak saltzen dituzte, eta horiei esker hortzak ondo garbitu diren ala ez ikus daiteke. Pilulak ahoan sartzean disolbatu egiten dira, eta, gero, urarekin garbitu behar da. Pilula hauek gorriak dira, eta ondo garbitu ez diren lekuak gorritz tindatzen dira, hau da, plaka geratu den tokiak. Gorritz tindatu diren toki horiek berriz eskuilatu beharko lirateke, hondakin guztiak kentzeko. Metodo hori oso erabilgarria da haurrentzat, kolorearekin identifikatzen dituztelako gune zikinak.

Eskuilatu ondorengo kolutorioari dagokionez, gomendagarria da, baina haurren adinerako egokia izatea hartu behar da kontuan. Farmazietan beti topatuko duzu, adin desberdinetako haurrentzako fluor-kolutorioa.



EXPRESS ESKAINTZAK!

LG F4DV3108S1W ARROPA GARBIGAILU ETA LEHORGAILUA



599 €



- 1.400 b/min
- Gehieneko karga: 8 kg
- Wifia
- Etenaldia + karga funtzioa
- Inverter motorra
- Haurrentzako blokeoa

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

ALDAZ HORTZ KLINIKA
San Bartolome, 22- 20870 Elgoibar
iyd@dentalaldaz.com

943 366 377

14 BARIKUA

16:30 Odol ateratzea. Elgoibarko Zaharren Biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408

22:00 San Anton pilota txapelketako finalak. Lagunak pilota taldeak eta Kirol Patronatuak antolatuta, Ikastolako frontoian.

15 ZAPATUA

12:00 Erakusketa: Zigilu erakusketa, Elgoibarko dultzaineroen 50. urteurrenari eskainita. Azaroaren 22ra arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean.

16 DOMEKA

12:30 / 16:30 Musikala: 'Go!Azen 8.0'. ETBko telesaileko hainbat aktorek kontzertua eskainiko dute. Herriko Antzokian.

17 ASTELEHENA

11:00 Meza Nagusia. San Bartolome parrokian.

12:30 Kontzertua: Arineketan. Emudafek antolatuta, Herriko Antzokian.

21:00 Idi-demak: Saizar Saria. Sig-mako probalekuan.

21 BARIKUA

19:00 Bideo foruma: *Alma salvaje*. Lilan. Antolatzailea: Haizea.

19:00 'Ez da kasualitatea' bertso-saio musikatua. Bertsolariak: Uxue Alberdi, Onintza Enbeita eta Miren Amuriza. Gai jartzailea: Maite Berriozabal. Musika-riak: Gari Otamendi eta Ixak Arruti. Makina Erremintaren Museoa.

20:30 Antzerkia: 'Greenpiss'. Yllana antzerki taldeak aurkeztuko du. Herriko Antzokian.

Zinea (Herriko Antzokian)



'West side story'

15 zapatua: 19:00 / 22:15

16 domeka: 19:00

17 astelehena: 21:00

'Petite maman'

(Ongarri zinekluba)

19 eguaztena: 21:00

Abenduan hildakoak

- **Maria Oñederra Irureta**
87 urte, abenduak 4
- **Maria Lourdes Sanz San Millan**
96 urte, abenduak 7
- **Juan Agustin Esnaola Egaña**
91 urte, abenduak 11
- **Virtudes Izquierdo Delgado**
95 urte, abenduak 11
- **Jesus Mari Lizundia Bernedo**
76 urte, abenduak 11
- **Maria Eloisa Ezenarro Loiola**
92 urte, abenduak 15
- **Oscar Oruesagasti Soraluze**
70 urte, abenduak 22
- **Angel Kortaberria Idigoras**
74 urte, abenduak 27
- **Mari Carmen Pildain Iribecampos**
78 urte, abenduak 30
- **Juanita Alzola Zubiaurre**
83 urte, abenduak 30

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-22:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
14 BARIKUA	15 ZAPATUA	16 DOMEKA	17 ASTELEHENA	18 MARTITZENA	19 EGUAZTENA	20 EGUENA	21 BARIKUA
Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia	Egunez *Oruesagasti	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea
Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean ---	Iluntzean Arriola	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea

* Fernandez:
Herriko enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
Esther Mendinueta Berastegui.
Urkizu pasealekua, 6 (Eibar)
943 820 106



IV. URTEURRENA

Pedro Mari Esnaola Irusta

"Musillo"

2018ko urtarrilaren 16an hil zen, 88 urte zituela.



***Erraza izan da zu maitatzea, ezinezkoa, ordea, zu ahaztea.
Beti izango zaitugu gure bihotzetan.***



Jose Mendikute Muguruza

2022ko urtarrilaren 5ean hil zen, 78 urte zituela.

***Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.***



Gregorio Vives Zabaleta

2022ko urtarrilaren 5ean hil zen, 77 urte zituela.

***Jaso ditugun maitasun
eta adeitasun keinuek
eramangarriagoa egin digute
agur esatea,***

eskerrik asko.

Vives Urbieta sendia



I. URTEURRENA

Sabin Osoro Unzueta


2021eko urtarrilaren 8an hil zen, 98 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,
domekan, urtarrilaren 16an, 11:00etan,
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Egunak joan dira
eta badoaz,***

***baina zu ez zara gugandik askorik aldendu.
Gure gogoan zara, Sabin.***


Etxekuak





Izar
Ramirez
Suinaga.
4 urte,
Elgoibar

"Laino koloretsuak"



Ane
Etxaniz
Arano.
5 urte,
Elgoibar

"Koloreak"



ELGOIBAR BHI INSTITUTUA

2022-2023 Zatoz!

2022/23 ikasturterako DBHko aurrematrikula
urtarrilaren 17tik otsailaren 28ra
Gurasoentzako bilerak:

Elgoibarko gurasoentzat: urtarrilaren 19an, arratsaldeko 18:00etan
Institutuko Areto Nagusian (Ezenarro eraikina).
Mendaroko gurasoentzat: urtarrilaren 20an, arratsaldeko 18:00etan
Arreiturre liburutegian.



Elgoibar BHI
www.elgoibarbhi.eus

Elgoibar BHI
Arregitara 2
Tel.: 943 899 316

E-posta: 01343/aa@teokurtoa.net



elgoibarko
herri eskola

Kalerra, 8
Tel.: 943 740 879

E-posta: 012777aa@teokurtoa.net



Baikara
Elgoibarko Basak
Guraso Federazioa



EUSKO JAIPLAKITZA
GOBIERNO VASCO

MINISTERIO DE EDUCACIÓN
GOBIERNO VASCO



Jarri gurekin harremanetan,
bertatik bertara ezagutzeko

Aurre-matrikulazioa:
urtarrilaren 17tik 28ra

Ikastola etorkizunerantz hezkuntza eraldatzan



ikastolenkartea



elgoibar@elgoibarikastola.eus

943 74 44 41

www.elgoibarikastola.eus